

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren 202/2020 Foru Agindua, irailaren 9koa, Bastidako UEZi3-SI egikaritze unitatearen Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egiten duena

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatuaren urtarrilaren 20ko 6/2016 Foru Aginduaren bidez, Bastidako UEZi3-SI egikaritze unitatearen Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egin zen, zenbait baldintzari lotuta aldeko irizpena emanik (ALHAO, 13 zenbakia, 2016-02-03).

Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 29.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen txosten estrategiko horrek indarra galdu du gaur egun, eta ondorioak eten egin dira; beraz, ez da behin betiko onestu aipatutako Plan Berezia.

Ildo horretatik, berriro izapidetu behar da Bastidako UEZi3-SI egikaritze unitatearen hiri antolamenduren plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuaren prozedura, Ingurumen Ebaluzazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez araua.

Prozedura horren barruan, Bastidako Udalaren idazki bat eta ingurumen agiri estrategikoa sartu ziren Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuan, Bastidako UEZi3-SI egikaritze unitatearen hiri antolamenduko plan bereziaren ingurumen ebaluazio estrategikoen prozeduraren izapideak hasteko Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen bidez arau den gutxieneko edukiaren arabera. Horrez gain, dagokion hirigintza agiria ere sartu zen.

Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako agiriak jaso eta berehala, kontsultak egiteko aldiari hasiera eman zion eragindako administrazio publiko eta pertsona interesdunen artean, 21/2013 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

Ebazpen honen oinarri den ingurumen txosten estrategikoa 2020ko irailaren 3an eman zuen Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak (20/37 espedientea).

1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena. Aztertu nahi den eremu geografikoa. Aztertu diren balizko kokalekuak

1.1. Plan bereziaren ezaugarrien laburpena:

Bastidako industria hiri lurzoruko Zi3 egikaritze unitatearen hiri antolamenduko plan bereziaren proposamena, berez, bat dator Bastidako udalerriko hirigintza planeamenduko arau subsidiarioetan ezarritako beharrezanarekin (2000. urtea), alegia, Bastidako herrigunean industria poligono txiki bat antolatu eta egikaritzeko beharrezanarekin. Industria poligono hori pentsatuta dago nekazaritza pabiloiak hartzeko, bai eta jarduera lizentzia sailkatuaren peko jardueretarako ezarritako atalesak gaintzen ez dituzten industria eta/edo zerbitzu erabilera eta jardueretarako.

Plan bereziaren barruan aurreikusitako jarduerak URA agentziak ezarritako alde aurreko gidalerro baten pean daude: Matagallegos errekaen aire zabaleko ibilgua ireki behar da, alegia, gaur egun hodian barnean doana eta mendealdean planaren eremu horrekin muga egiten duena.

1.2. Ebaluatu beharreko eremu geografikoa:

Orain analizatzen ari garen hiri antolamenduko plan bereziak 14.913,92 m² antolatzen ditu guztira, eta UE Zi3 egikaritze unitateak hainbat eremu ditu, 7 katastro partzeladuna bakoitza. Egikaritze unitate hori Bastidako herrigunean dago, Harorako irteeran (Haro, Errioxa), foru titularitateko tokiko sareko errepidean (A-3202), zeina, era berean, plan bereziaren lurralde eremuaren hegoaldeko muga baita.

Jarraian, Plan Bereziaren eremuaren plano bat erakusten da. Plano horretan, gainera, Matagallegos erreken trazadura jaso da, aire zabalean ireki nahi dena eta Plan Bereziaren eremutik kanpo geratuko litzatekeena:



1.3. Aztertu diren balizko kokalekuak:

Ondoko lerrootan, aztertu diren balizko aukerak edo irtenbideak azaltzen dira era laburrean:

- "0" aukera: industria poligonoa ez egikaritzea ekarriko luke, eta, beraz, aukera hau baztertu egin du udalak. Era berean, Ingurumen Agiri Estrategikoak jasotzen duenez, "aukera honek dakar Bastidako hirigintza planeamenduko arau subsidiarioen agindua ez betetzea"
- "1" aukera. Hirigintza antolamenduko plan bereziaren proposamenari buruzkoa da, zeina udalerriko hirigintza planeamenduko indarreko arau subsidiarioetan ezarritako hirigintza sailkapen eta kalifikazioari zor baitzaio, eta, hala, aldi berean gauzatzen da plan bereziaren eremutik kanpo Matagallegos erreken ibilgua azalera ekartzea, URA agentziaren jarraibideen arabera.

Ingurumen Agiri Estrategikoan, aukera hau zergatik hautatu den justifikatzen da, hiru irizpide tekniko eta ingurumenezkotan oinarriturik.

1. Ez du erabiltzen lurzoru urbanizaezin berririk.

2. Bastidako udalerriko hirigintza planeamenduko arau subsidiarioek horretarako sailkatutako kokaleku bakarra da.

3. Industria poligonoa egikaritu ezean, arau subsidiarioak ez betetzeaz gain, ezin dira atera herrigunetik lantegi "gogaikarriak", hala nola aroztegiak, edo nekazaritzako ibilgai-luak konpontzeko tailer mekanikoak. Era berean, galarazi egiten da lurzoru urbanizaezinean nekazaritza pabiloi gehiago eraikitzeo aukera.

Atal honetan, beharrezkoa da argitzea, Ingurumen Agiri Estrategikoan hitzez hitz jasotzen denez, honako hau: "Bastidako arau subsidiarioen aldaketa puntualak, zeina SI sektoreko industriako hiri erabilerari buruzkoa baitzen, baldintzak ezarri zituen sektore hori kudeatzeko; bertan dago Zi3 kudeaketa unitatea sartuta, eta hain zuzen ere, baldintzak dira Matagallegos erreken ibilbidea agerian uztea eta EAEko mediterranean isurialdeko ibai eta erreken ibilguen ertzak antolatzeo LPSak ezarritako gutxienero tartek uzteko baldintza betetzea."

2. Kontsulta fasearen laburpena

Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, 2020ko martxoaren 11n, hasiera eman zion eragindako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, prozedura arautuari jarraituz. Jarraian, kontsulta egin zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda erakusten da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazten da:

URA - Uraren Euskal Agentzia	X
Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza	X
Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza	
Arabako Natur Institutua	
Ekologistak Martxan Araba	
GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeo Arabako Taldea	
Eguzki talde ekologista	
Hontza Natura Elkarte	
GAIA elkarte	
Gasteiz Zero Zabor	
Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala)	
UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte	
IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa	X
Arabako Kontzejuen Elkarte	
SEO Bird Life	
Bastidako Udala	
Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua	
Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua	X
Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza	X

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazioen edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 20/37 espedientean eta www.araba.eus; webgunean dago):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak hau jasotzen du txostenean: "aldaketak eragindako lurzatietan ez da oraingoz interes arkeologikoko ezer aurkitu. Edonola ere, berehala jakinarazi behar da industrialde honen egikaritze obrek dirauten bitartean ager daitekeen eta interes arkeologikoa izan dezakeen edozein aurkikuntza.

- URA – Uraren Agentziak lehenengo txostena prestatu eta bertan zehazten du eskaera Ebroko Konfederazio Hidrografikoari igorri zaiola, egokitzat joz gero gaiaren gainean informatzeko.

URAREN bigarren txostenean, hiru ondorio adierazten dira hainbat iruzki egin ondoren jabari publiko hidraulikoaren eta haren babes guneen babesari nahiz hornidurari eta saneamenduari buruz.

a) "Axoste edo Matagallegos errekaen ibilgua azaleratzeko eta naturalizatzeko proposamenari buruzko dokumentazio zehatza (grafikoa eta idatzia) aurkeztuko da. Proposatutako ibilguaren trazadurarekin izan beharreko atzeratze lerroak ere sartuko dira antolamendu planoetan.

b) Behar diren neurri babesle eta zuzentzaileak ezar daitezela eskatzen da, ibilgua lehengoratzeko eta naturalizatzeko obrak behar bezala gauzatzen direla bermatzeko, bai eta ibilguaren mantentze lanak ere.

c) Erakunde kudeatzailearen (kasu honetan, Errioxako Ur Partzuergoaren) azpiegituren nahikotasun txostena aurkeztu beharko da, sistemek eskakizun berriei zerbitzua emateko duten gaitasuna justifikatzeko.

Azkenik, adierazten da eremuak Axoste edo Matagallegos errekaen jabari publiko hidraulikoko babes eremuei eragiten dienez, eremu horietan egingo den edozein jarduerak Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren nahitaezko baimena izan beharko duela, zeina URAn izapidetuko baita.

Bestalde, URAk eskatuta, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak bere txostena egin du. Txosten horretan, plana laburbildu eta planak ingurune hidrikoan dituen eraginei buruzko gogoeta batzuk egin ondoren, honako hau ondorioztatu da: Bastidako HAPBren (...) ondorio aurreikusgarriak bateragarritzat jotzen dira, sistema hidrikoari dagokionez, baldin eta beharrezko prebentzio neurriak eta neurri zuzentzaileak hartzen badira, proposatutako aldaketak eragina izango duen zonan eta haren inguruan eragina ahalik eta txikiena izan dadin. Neurri horien bidez, bermatu beharko da ez dela nabarmen aldatuko esku hartzen den zonako dinamika hidrologikoa eta eragindako zonen ingurune hidrikoa (bai azalekoa, bai lurrazpikoa) babestuko dela une oro, kutsatu edota degradatu ez dadin".

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritzak lehendabiziko txosten bat egin zuen, eta bertan adierazi zuen ez zela behar den informazio kartografikoa eman. Hala ere, bigarren txosten bat egin zuen, eta, bertan, proposamenaren laburpena egin ondoren, biodibertsitatearen gaineko balizko eraginak aztertu ziren. Lehenik eta behin, positibotzat jotzen da Arabako Foru Aldundiak urtarrilaren 20ko 6/2016 Foru Aginduaren bidez emandako Ingurumen Txosten Estrategikoan baldintzetan jasotzea Zuzendaritzak (lehen Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritza izena zuena) emandako gogoetak, Mediterraneoko ibaiertzeko basoan berezkoak diren edo Matagallegos errekaen birnaturalizazioan trantsiziokoak diren zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak landatzeari buruzkoak.

Hala ere, zenbait zehaztugabetasun hauteman dira, eta horiek zuzentzea ezinbestekotzat jotzen da. Zehazki, honakoak eskatzen dira:

- Matagallegos errekaen lehengoratzea sartzeari, Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren urbanizazioaren kontura.

- Zaharberritzeko proposamena eta hura mantentzeko proposamena gehiago zehaztea.

- Lehengoratzeen aurrekontua sartzeari, errekaen ertzak barne, sektoreko urbanizazioaren kontura

- Zonaka bereizitako proposamen bat egitea sektore osoan SLEL-ZV lurzoruan landareztatzeko.

- Obrak egin bitartean ingurumena zaintzea, bi urte igaro arte.

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzak jaso duenez, dagokion dokumentazioa aztertu ondoren, plan horren eremuan ez da zuzeneko eraginik hauteman kultura ondarearen elementu individualizatuetan. Hala ere, adierazten da planaren eremua Arabako Errioxako Ardoaren eta Mahastiaren Paisaiaren zati dela (89/2014 Dekretua, ekainaren 3koa), eta, beraz, "Planak eragindako eremuan egin beharreko esku hartzeek Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen baimena beharko dute.

- IHOBE - Ingurumen Kudeaketako Sozietate Publikoak adierazi duenez, organo honetan ez da agertzen kokapen horietan lurzorua kutsa dezakeen jarduerarik egin denik eta, beraz, ez dira sartzen lurzorua kutsa dezaketen jarduera edo instalazioak jasan dituzten edo jasaten dituzten lurzoruen inbentarioan. Azkenik, jasotzen denaren arabera, kutsadura zantzuak antzematen badira, Lurzorua Kutsatzea Saihestu eta Kutsatutakoa Garbitzeko 4/2015 Legearen 22. artikulua betez, gertaera horren berri eman beharko zaio Ingurumeneko Sailburuordetzari.

- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak adierazten duenez, proposatutako agiriak ez du eraginik historia eta kultura balioa dela-eta babestutako elementu edo higiezinetan, eta beraz, Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuaren ustez ez dago oztoporik izapideak egiteko.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak honako hau dio bere txostenaren ondorio gisa: planak ez du inolako eraginik nekazaritzako eta abeltzaintzako jardueran, eta nekazaritza eta basozaintzako lurralde plan sektorialaren antolamendu eremutik kanpo dago. Era berean, ez du eraginik Arabako Lurralde Historikoko landa bideen erregistroan inskribatutako landa bideetan.

3. Ebaluazio prozesuaren analisia

Sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, ingurumen organo honek uste du dokumentazio horrek, oro har, behar adinako kalitatea duela Plan Bereziaren Ingurumen Ebaluazio Estrategikoa egiteko. Plan bereziaren eremuaren ingurumen ezaugarrien azalpena egiten du, eta baita plan bereziaren garapenak eragin ditzakeen ingurumen ondorioen zerrenda bat ere. Era berean, ingurumen eraginak saihesteko prebentzio eta zuzenketa neurri batzuk proposatzen dira, eta bertan Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren urtarrilaren 20ko 6/2016 Foru Aginduaren bidez emandako aurreko ingurumen txosten estrategikoan jasotako baldintzez gain (ALHAO, 13. zenbakia., 2016ko otsailaren 3koa), beste ingurumen integrazioko neurri batzuk ere sartzen dira, hala nola saneamendu sarera egindako isurketak, emisio akustikoen mailak eta bibrazioak, urbanizazioak ibaiertzarekiko izan beharreko 5 metroko atzeramanguneak eta 15 metrokoak Matagallegos errekarako eraikuntzak, paisaian integrazteko neurriak eta abar. Neurri horiek era jasotzen dira hirigintza agirian.

4. Planak Natura 2000 Sarean izan ditzakeen ondorioen balorazioa

Plan bereziaren eremutik gertuen dagoen Natura 2000 Sareko espazioa Ebro ibaiaren KEBa da (ES2110008), zeina Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politika Sailak onartu baitzuen 35/2015 Dekretu martxoaren 17koaren bidez; halaber, dekretu horren beraren bidez onartu ziren kontserbazio helburu eta arauak. Bestalde, Natura 2000 Sareko espazio horren Kudeaketarako Jarraibideak eta Neurriak onartu zituen Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 10eko 122/2015 Erabakiaren bidez. Ebro Ibaiaren KEBa 1400 metro ingurura dago kokatuta. Nolanahi ere, plan berezia Bastidako hiri bilbearen barnean kokatuta dagoenez eta kontuan harturik planak berak ezarritako ingurumen zuzenketa eta babeseko neurriak, uste da ez zaiola nabarmenki erasango espazio horri eta ibaiko KEBaren funtzionalitateari. Hala ere, funtsezkoa izango da honako ingurumen txosten estrategiko honetan definitzen diren neurriak ezartzea, eta bai ere ingurumen agiri estrategikoan zehaztutakoak; bereziki, funtsezkoa izango da Matagallegos erreka bere oneratzeko eta naturalizatzeke ezarritako neurriak onartzea.

5. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Jo izan da UEZi3-SI egikaritze unitatearen hiri antolamenduko plan bereziak ez duela eragingo ingurumen ondorio axolazkorik, betiere ingurumen ebaluazio estrategiko sinplifikatuko prozedura honen barruan sustatzaileak aurkeztutako dokumentazioan deskribatutako jardueri badarraikio eta txosten honetan ezarritako xedapenak errespetatzen badira.

Zehazki, balorazio positiboa egiten da Ingurumen eta Hirigintzako diputatuaren urtarrilaren 20ko 6/2016 Foru Aginduaren bidez emandako ingurumen txosten estrategikoan (ALHAO, 13. zk., 2016ko otsailaren 3koa) jasotzen ziren ingurumen baldintzak ebaluatzea xede duen Plan Berezia Hirigintza Dokumentuari gehitzeari dagokionez.

Ildo horretatik, Matagallegos erreken aire zabaleko ibilgua irekitzea, nahiz eta hura Plan bereziaren eremutik kanpo egon, oraindik ere positibotzat jotzen da ingurumenari begira, jardun horren xedea baita ibai eskosistema birsortzea eta ibai ertzak berregitea eskualdearen ezaugarriekin bat, halako moldez non ibai eremua naturalizatzeko prozesua erraztu egiten baita. Matagallegos erreken lehengoratzeari Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren urbanizazioaren kontura egingo da. Era berean, oso garrantzitsutzat jotzen da jarduketa horrek EAEko isurialde mediterraneoko ibaien eta erreken ibilguen ertzak antolatzeko LAPean ezarritako arau-baldintza guztiak betetzea, bai eta, oro har, ingurumen ebaluazioko prozedura honen esparruan eskumena duen Administrazio Hidraulikoak Plan Berezian jasotako jarduketak gauzatzeko obrek irauten duten bitartean ezarritako baldintzak ere.

Azkenik, beharrezkotzat jotzen da ingurumen baldintza hau sartzea "UEZi3-SI" egikaritze unitatearen hiri antolamenduko plan bereziaren hirigintza dokumentuan.

– Hiri antolamenduko plan berezian jasotako obrak hasi aurretik, sustatzaileak abisua emango dio Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko Zerbitzuari, obren alde aurreko zuinketa ezartzeko eta obren ingurumen jarraipen egokia egiteko, arreta berezia jarritz "Berdeguneak" espazio libreen sistema orokorrarekin dagokion eremuan egin beharreko ingurumen hobekuntzako jarduketei.

Horrenbestez, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 40. artikuluan ematen dizkidan esku-duntzak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Bastidako UEZi3-SI egikaritze unitatearen Hiri Antolamendurako Plan Bereziaren ingurumen txosten estrategikoa egitea.

Bigarrena. Ingurumen ebaluazioaren abenduaren 9ko 21/2013 Legea betetzeko, ingurumen txosten estrategikoa ingurumen irizpen erabakigarria izango da neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Agintzea ingurumenaren txosten estrategiko hau ALHAOn argitara dadila.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 9a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua

JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria

NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA